

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Temperatura altuek Nafarroa alertan jarri dute basoetan suteak pizteko dagoen arrisku handiagatik

*Gobernuak arreta handia eskatu du, eta gogora ekarri du hilaren 15etik aurrera udan suaren erabilpenari buruzko murrizketak indarrean daudela landa-eremuan*

Asteazkena, 2016.eko ekainak 22

Nafarroako Gobernuak herritarrei eta bereziki nekazariari eskatu die bilketa-lanak hasten diren une hauetan arreta handiz joka dezatela datozen egunotan basoetan suteak pizteko dagoen [arrisku oso handiagatik](#); izan ere, [tenperatu altuak aurreikusi](#) dira, lurrak oso lehor daude, eta bihar, osteguna bereziki Kantauri isurialdean, Pirinioaldean eta Errege Bardeetan arrisku hori muturrekoa izango da.



Helikoptero bat basoan sortutako sute bat itzaltzeko lanetan.

Gainera, gogoratu behar da ekainaren 15ean udan nekazaritza nahiz basoko lurretan sua erabiltzeari buruz [aurreikusitako murrizketak](#) indarrean sartu zirela, suteak ekiditeko prebentziozko neurri gisa.

Beste debeku batzuen artean, zonaldean aisialdirako sua piztea galarazten da (barbakoak), eta ezta hori egiteko prestatuta dauden lekuetan ere; geografia-eremu horretako basoko pistetan errekontzako motordun ibilgailuekin zirkulatzea galarazten da, eta sasiak, basoko hondakinak erretzea edo lehorreko nekazaritza-lurretan erretzea.

### Nekazariarentzako gomendioak

Arreta handitzeko gomendioa garai honetan beraien laborantzen bilketa-lanak egiten dituzten nekazariarentzat da, data hauetan piztutako sute gehienak lan horiekin baitute zerikusia.

Kolektibo horri eragiten dien gomendio garrantzitsuenen artean, Nafarroako Gobernuak ondorengo gomendatzen du: fardoak egiteko makinak eta uzta-makinek bi sulfatagailu edo kantinplora eraman ditzatela urez beteta gutxienez (15 litroko tanga batekin) hasierako neurri gisa erabiltzeko suteran bat sortzen bada ere.

Makinak edo haren errodadurak gehiegi berotu ez daitezen ere eskatzen du, eta baita elektrizitate estatikoa ez pilatzea ere lurreko deskargagailuekin. Gainera, oraingo tenperatura altuko egunetan, jarduera

murritzeko edo eteteko eskatzen du 13:00ak eta 17:00ak artean, isolaziorako denbora-tarte handiena da; tarte horretan pizten dira sute gehien, estatistikei erreparatzen badiegu.

Desnibelego lurretan belarra mozteko lanetan, mozteko pintza pixka bat altzatzea gomendatzen da biltzeko makinak bira ematen duenean 13:00ak eta 17:00ak artean; hala, lurra eta izan daitezkeen harriak ez dira ukituko. Gainera, patinaren behealdea nylonezko edo beste material metaliko bateko plantxekin estaltzea komeni da.

Gobernuak pertsona horiei makinaren mantentze-lanetan arreta handiagoz aritzea gomendatzen die ere. Hau da, gas-kolektorea eta lastoa egunero batzen den uzta-makinaren beste puntu batzuk garbi ditzatela. Halaber, ihes-hodiaren irteera berrikusi behar da txinparta-eragileak behar bezala funtziona dezan.

Ahal den guztietan, egokia da jadanik bildutako guneen, bildu gabekoen eta baso-lurren arteko etenak ziurtatzea. Horretarako, garrantzitsua da eremu horien inguruan sail-tarte bat disko-goldeekin landatzea laborantzaren ondoren.

Azkenik, nekazariak telefono mugikor bat eraman dezaten gomendatzen da, eta berehala dei dezatela larrialdien telefonora (112-SOS Navarra) sutereren bat izanez gero.

### **Herritarrentzako gomendioak**

Egunotan landa-eremuetan dabiltzan edo bertan bizi diren pertsoneri dagokienez, Nafarroako Gobernuak ere arreta handiz ibiltzea eskatzen die suterik piztu ez dadin.

Zehazki, azpimarratu du zigarrokinak, pospoloak edo arriskuko beste objekturen bat ez direla bota behar landa-eremuan. Ezin dira ere hondakinak utzi xede horretarako bideratutako guneetan.

Baso-inguruneetan zirkulatu behar duten pertsoneri dagokienez, Nafarroako Gobernuak gogorarazi die ingurua ongi ezagutzea komeni dela, eta motordun ibilgailuekin zirkulatzea ekidin behar dutela hori egitea baimenduta dauden tokietatik beharrezkoak ez badira; izan ere, ihes-hodiak sasi lehorrak ukitzean sutereren bat sor daiteke.

Mendi ibiliak egiten dituztenei ere zirkuituetatik ez ateratzeko aholkatzen die, eta ibilgailuak prestatutako aparkalekuetan utzi ditzatela edo larre edo sasirik ez dagoen guneetan.

Sutereren bat ikusiz gero, beharrezkoa da abisua lehenbailehen ematea 112-SOS Navarrari, non dagoen adieraziz eta bide egokienak esanez sua itzaltzeko taldeak bertan errazago sar daitezten

Azkenik, herritarren bat sute batetik hurbil badago, Nafarroako Gobernuak albotatik eta behealdeetatik urruntzeko gomendatzen dio, argigune batera joan dadila edo zuhaitz eta sastrakarik gabeko gune garbi batera, eta haizearen noranzkoaren aurka joan dadila beti.